

Hondartzako ametsak

Miren Azkarate
Badiola

Egun historikoa bizi izan genuen orain egun batzuk. Eta ez, ez naiz ETArek amaieraz ari, ez baita hori hilabete honetan gertatutako gertakari historiko bakarra. Gainera, hitz egin behar zutenek eta ez zutenek ere hitz egin dute dagoeneko gai horren inguruan, hau da, den-denek! Egia eta garbi esateko, kokoteraino bukatu dut.

Realak eta Athleticen Anoetan jokatu zuten partida historikoaz idatzi nahiko nuke gaurkoan. Izan ere, batzuentzat garrantzi gutxiko gertaera izan bada ere,

neska futbolariak derbi bat Anoetan jokatzea inoiz gertatu gabeko zerbait zen aurreko igandera arte, eta askorentzat, ni barne, amets imajinaezin bat.

Ni ikastola garaian hasi nintzen futboleko, garai hartan Donostiako Kontxako hondartzan jokatzen zen umeen ligan. Mutilekin jokatzen nuen; bai, neska bakarra nintzen. Koxkortzen joan ahala, Federazioak ni taldetik botatzea erabaki zuen, 10 urte nituela. Arrazoia: neska nintzela. Ondorengo urteetan, 14 urte bete arte hain zuzen ere, futbola ez zen

beste kirol batzuk egitera behartuta egon nintzen, 14 urterekin hasten zirelako emakumeen ekipoak eta liga. Eta hantxe egon nintzen nire gorputzak aguantatu zuen arte jokatzen. Garai hartan sortu zen Real eta indarra hartzen hasi zen emakumeon futbola.

Inork gutxi imajinatzen genuen garai hartan Anoetan jokatuko genuenik noizbait eta emakumeon futbola ikusgarritasun hori izango zuenik. Hondartzan hainbatetan amestutakoa egia bilakatu da. •

Bisaiak

Antton Izagirre

Maiatzeko lehen astea bete izan dugu telebista, irrati, zein egunkarietako berri eta iritzi emariei dagokionez. Orduak eman ditugu haiei eta hangoei so, handik igaro diren politikari, tertulialak eta herritar arruntei adi.

Genevakoa eta Kanbokoa guztiek izan dute ahotan. Hitzordu horiez esan edota idatzi dutenaz beste, haien gorputz-espresioari eta aldarteari eskaini diegu arreta. Esan dutena baino, komunikatu digutena jaso dugu oroimenean; ez baita gauza bera esaten

dena eta komunikatzen zaiguna. Bisaiak, aurpegia, arimaren isla dela aitortu ohi dugu.

Jo dezagun, telebistan aurrez aurre, begiz begi dugunari, ahotsa kendu eta haren bisaiari, gihar eta keinuen adierari, eskuen dantzari, gorputzaren arintasunari/nagitasunari erreparatzen diogula, edota, entzun eta idatzitakoaren tonuaren arabera, autorearen bisaiak geure baitan irudikatzen dugula. Bitan banatu ditugu, irribarreak ala malkoak, bisaiak ilunak ala distiratsuak erakutsi dituztenak.

Paradoxa adierazgarria: urteetan ETA desagertzea eskatzen jardun izan direnen bisaiak, goibel, tenkatuak eta tematuak sumatu ditugu. Aldiz, ETA babesteaz akusatutako izan direnen bisaiak, apal, irribarretsu eta akordioetara irekiak igarri ditugu.

Hitzetatik harago doan komunikazio moldea dugu bisaiak edo bisajak; gure kasurako, hitza bera baino esanguratsuagoa.

Ez dugu inoren izenik emango, baina edonork asmatu baietz nor jarri alde batean ala bestean! •